



Haur-Minbiziaren Nazioarteko Eguna

Aurten Haurren Minbiziaren Nazioarteko Eguna otsailaren 15ean ospatu zen; gaixotasunari buruz kontzientzia sortzea eta minbizia pairatzen duten haurrak eta nerabeak bermatzea du helburu.

Minbizia haur eta nerabeen heriotza-kausa nagusietako bat da, eta urte guztietan 400.000 haur baino gehiago diagnostikatzen dituzte minbiziarekin mundu osoan, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera; estatu osoan 1.400, EAEan 100-150 eta Gipuzkoan 25-30 kasu berri detektatzen dituzte.

Nerabe eta haur gehienak minbiziarekin diru-sarrera txiki eta ertaineko herrialdeetan bizi dira; ondorioz, goiz antzemate, diagnostiko, tratamendu eta zaintza aringarritarako arazo eta desberdintasun onartezinak jasan behar dituzte. 2018ko irailean, OMEk haur-minbiziaren aurkako mundu-ekimena abiarazi zuen, desberdintasun larri horiek murrizteko asmoz. Helburua 2030erako minbizia duten haurren %60 gutxienez bizirik irautea eta guztien sufrimendua murriztea da.

Nahiz eta haur eta nerabeen %80k herrialde garatuetan bizirautea lortzen duten, ikerketek frogatzen dute 2 heren tratamenduaren albo-ondorioak pairatzen dituztela 5 urte edo gehiago igaro ondoren; gainera, bizirautean diren laurdena haren osasun eta bizitzarako ondorio larriak tratamenduarengatik izango dituzte.

Gaur egun, egoera are eta larriagoa da; izan ere, COVIDagatik mundu kaltetu batean bizi gara, eta bai goiz diagnostikoan bai tratamenduetan bai zaintzan eragin negatiboa du.

Hori guztia dela eta, hurrengo mozioa aurkezten da:

1. Munduko Egun honen helburua, hain zuzen ere, kontzientziatzea denez, Eusko Jaurlaritzari eta Espainaren gobernuari tresna gehiago eta hobeak (laguntza psikologikoa) eskatzen dizkiegu kaltetutako haur eta nerabearako, minbiziaren inpaktu emozional, psikologiko eta fisikoa arintzeko eta pazienteei nahiz haien senideei prozesuaren une guztietan laguntza errazteko, diagnostikotik hasiz eta zainketa aringarri unibertsal eta integraletaraino, bai ospitaleetan, bai etxeetan.
2. Udalak konpromisoa hartzen du Osasun Publikoko eragileekin lankidetzan aritzeko bizimodu osasungarria sustatzen duten prebentzio-estrategietan, eta estrategia horiek tokiko politika instituzionalean sustatzeko.
3. Udala prest dago sentsibilizazio-laguntza-programak garatzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak eta minbizia duten gaixo eta senideekin lan egiten duten erakunde eta elkarteek egiten dituztenak.